



EBAZPENA (Espedientea: 07/2008 TKI)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, presidenteordea eta txosten-egilea

Juan Luis Crucelegui Garate jauna, mahaikidea

Jose Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Gasteizen, 2009ko otsailaren 2an.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, arestian esan diren kideekin eta Joseba Andoni Bikandi Arana jauna txosten-egile izanik, ondoko ebazpena eman du zigor-prozedura ez egiteko proposamenari buruzko 07/2008 espedientean. Izan ere, J. R. B. Z.k demanda bat aurkeztu zuen TKI enpresaren izenean zenbait enpresa proiektutarako diru-laguntza publikoak eskatu eta ukatu egin zitzaizkiolako.

GERTAERAK

1. 2008ko ekainaren 19an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (hemendik aurrera LDEZ), "J. R. B. Z.k TKI enpresaren izenean jarritako salaketaren inguruan, zigor-espedienterik ez egiteko proposamena" bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari (2008ko ekainaren 20ko sarrera-data), Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua dela bide, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen manuak hautsi izanaren gaineko zantzurik ez dagoelako. LDEZren proposamenean ondoko jarduketa hauek aipatzen dira:
2. 2008ko apirilaren 24an, J. R. B. Z.k aurkezturiko salaketa jaso zuten L.D.E.Z.n, hainbat enpresa proiektutarako laguntzak eskatu (SUSTATU, EKINTZAILE eta SUSTATU BIDEBERRI deialdiak) eta ukatu egin zitzaizkiolako, nahiz eta, haren ustez, ez zegoen diru-laguntzak ukatzeko arrazoirik. Salaketarekin batera, salatzailleak hainbat dokumentazio aurkeztu zuen. Hauexek dira, berak sailkaturiko eran: "1. Dosierra", "2. Dosierra" eta "Beste salaketa batzuk".
3. Eskabide hauek egin zituen demandatzaileak:



1. "1. Dossier" eta "2. Dossier" horiei dagokienez, sortutako egoera ebazteko eta Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak dakarren eskumen-esparru berria aplikatzeko.
2. Dossier bietan Europar Batasunaren Tratatuaren 87. artikulua hautsi izana agerrarazteko.
3. Autonomia erkidegoek aurkatzeko duten legitimazioarekin bat etorritz, dosierrak aplikatu eta berrikusteko (Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 13.2. artikulua).
4. Baldin eta herri administrazioa kontzentrazioa egiten ari bada, diru-ordaina emateko (kalte-ordaina), Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 10.4. artikulua eta beste batzuen arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

4. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikuluan xedatzen denez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak proposatuta (zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa dela bide) lege horren 1., 2. eta 3. artikuluek debekaturiko ustezko jokabideen ondoriozko prozedurak ez egitea erabaki dezake, baita jarduketak artxibatzea ere, Legea hautsi izanaren inguruko zantzurik ez dagoela irizten dionean.
5. Salatzaileren enpresa-proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko BEAZ, S.A. sozietate publikoak industri berrikuntzako edo oinarri teknologiko aurreratuko proiektuak sustatzeko ateratako SUSTATU eta EKINTZAILE diru-laguntzen programetara aurkeztu ziren. Proiektu horien parte-hartzeari eta salaturiko jokabideei dagokienez, lehiaren defentsarako estatuko organoek eskatzailearen asmoak ezetsi zituzten, LEDZk dioen bezala; izan ere, Lehiaren Defentsarako Estatu Zerbitzuak salaketa artxibatzea proposatu zuen 2005eko maiatzaren 5ean eta 2006ko martxoaren 16an, eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ezetsi egin zuen Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak artxibatzearen kontra emandako errekurtsua.
6. Salaketa-egileak espedientea hasia eskatu zuen Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aplikatzeak dakarren eskumen-eremu berriaren itzalpean. Lege hori urte bereko irailaren 1ean jarri zen indarrean. LDEZk dioenez, lehiaren defentsarako euskal organoek ezin dute estatuko agintariak ebatzitako espediente bat beren gain hartu, nahiz espediente hori egun indargabeturik dagoen arau baten itzalpean ebatzitakoa izan (kasu honetan, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legea), izapidetu zenean indarrean baitzegoen. Hala, behin betikoa da administrazio-bidean eta ebazteke dago bide judizialean.
7. Enpresa-proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen eta Berrikuntza Sailaren SUSTATU BIDEBERRI 2005 diru-laguntzen programan aurkezteari dagokionez, salaketa-egileak bere proiektuari buruz eginiko balorazioarekin ados ez zegoela adierazi zuen.



LDEZk diru-laguntza publikoei buruz adierazi duenez, herri administrazioek gizarte onurakotzat jotzen dituzten jarduerak sustatzearen edo helburu publikoak (auzi honetan, enpresa berrien sorrera sustatzea da helburua) lortzearen eremuan dituzten eskumenen artean daude diru-laguntzak ematea eta horietarako deialdiak egitea, eta herri administrazioen artean Bizkaiko Foru Aldundia dago.

8. Funtzio publiko horren eremuan erabaki dezake Bizkaiko Foru Aldundiak, hain zuzen ere, deialdi publikoa egitea zenbait irizpide eta betekizun oinarri hartuta, baina horien berri izango dute aurretik diru-laguntzak eskuratu nahi dituztenek.

Norgehiagoka bidezko diru-laguntzen deialdietan, aurkezturiko eskabideak konparatuta emango dira diru-laguntzak. Hala, aurkezturiko proiektuak deialdian ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera aztertzen dituen izapide organo ebaluatzaile bat dago (edo batzorde ebaluatzailea, deialdian hala ezarri bada). Proiektu bakoitzari balorazio bat emango zaio, eta horren arabera lehentasunak ezarriko dira. Organo ebaluatzaileak, berriz, diru-laguntza emateko proposamena egingo dio horiek emateko organo eskudunari, eta proposamen horretan puntuaziorik hoberenak lortu dituztenak agertuko dira.

9. LDEZk dioenez, organo ebaluatzaileek eskumena dute proiektuak kalifikatzeko, baina inola ere ez dute arbitrarioki jokatu. Beraz, zioak emanda hartu behar ditu erabakiak. Alabaina, erabakiekin ados egon ezik, aurkatzeko bideak daude. Bestalde, salatzaileak adierazi zuenaren arabera, gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen administrazio-bidean eta, haren asmoa onartu ez zenez, errekurtsioa jarri zuen bide judizialean administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan.

Hori dela-eta, lehiaren defentsarako organoek ezin azter dezakete deialdian aurkezturiko proiektuak kalifikatzeko eginkizuna ezarri zaien eginiko balorazioa, zeren eta administrazioa ez baita operadore ekonomiko gisa jarduten ari auzi honetan eta, horrenbestez, jarduketa horiek lehiaren defentsaren eremutik kanpora baitaude.

10. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua aplikatzeari dagokionez (salatzaileak azaldutako jokabideei aplikagarritzat jotzen duena), hauxe ondorioztatu du LDEZk, aurreko paragrafoan aipaturikoaz gain: artikulua hori aplikatzeko, operadore ekonomikoen arteko borondate-akordioa behar dela, aztergai dugun auzi honetan ez dagoela horrelako akordiorik, zeren azken erabakia administrazioak hartutako aldebakarreko egintza baita.

Izan ere, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikuluan ezarritako debekuak akordio-sorta zabala hartzen du, horien artean, merkatuan lehia eragotz dezaketen enpresen ia jardun oro.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua aplikatu ahal izateko, independenteak diren bi aldeko operadore ekonomikoak edo operadore ekonomiko anitz beharko dira aztertutako jokabide zehatzaren eremuan.

11. Europar Batasunaren Tratatuaren (hemendik aurrera EBT) 87. artikuluan xedatzen dena ez betetzeari buruzko aipamenari dagokionez, hauxe adierazi du LDEZk: nahiz eta EBTaren 87. artikuluan ezarri estatuko diru-laguntzak eta Merkatu Bateratuarenak bateraezinak direla, egia da salbuespen anitz dagoela printzipio horretan. Salbuespenen itzalpean egiten dituzte herri administrazioek diru-laguntzen deialdi publikoak. Hala ere, Europako Batzordeak horiek legezkoak



direla egiaztatzeko egiten dituen kontrolen menpe daude.

12. Izan ere, faltsutu gabeko lehia libreko sistema bati eustea da estatuaren diru-laguntzak kontrolatzeko oinarritzko printzipioa. Horretarako, EBaren Tratatuaren 87. eta 88. artikuluetan ezarrita dago bateraezinak direla estatuen diru-laguntzak eta Merkatu Bateratukoak. Kontrol horrek zentzua du, zeren diru-laguntzak jasotzen dituen ekonomia batek kendu egiten baititu ekoizpen-metodo berriak edo produktu berriak garatzeko pizgarriak, eta diru-laguntzak dituzten enpresak mantentzeak galarazi egiten du baliabide horiek lehentasunezko gizarte jardueretarako erabiltzea. Tratatuak debekatu egiten ditu diru-laguntzak (87,1. artikulua “..... estatuak emandako diru-laguntzak... bateraezinak izango dira Merkatu Bateratuarekin...”), baina onartu egiten ditu birbanaketako helburuak dituztenean (88. artikulua: Batzordeak etengabe aztertuko ditu... diru-laguntzen araubideak.... Diru-laguntzak emateko edo aldatzeko proiektuen berri emango zaio Batzordeari nahikoa denbora lehenago...6.).
13. Autonomia-erkidegoko lehiaren agintariek egintzak inpugnatzeari dagokionez, 15/2007 Legearen 13.2. artikulua oinarri hartuta, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek badute legitimaziorik beren lurraldeko autonomia edo toki administrazio publikoen administrazio-zuzenbidepeko egintzak jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko, baita lege-mailaz beherako xedapen orokorrak inpugnatzeko ere, baldin eta merkatuetako lehia eraginkorrari eusteko eragozpen badira. Ildo horretatik, LDEZk dio une horretan ezinezkoa zela eskabidea betetzea, zeren eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren gaineko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako epe luzaezinen (128. artikulua) menpe baitago administrazio egintzak eta xedapenak aurkatzea –bi hilabeteko epea, erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita– eta salaketa aurkeztu zen egunean, epe hori aspaldi gainduta zegoen.
14. Gainera, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 34.4. artikulua dakarrenez, LBNren Kontseilua da (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia kasu honetan) 12.3. artikuluan ezarritako inpugnazioa erabakitzeko organo eskuduna. Ukituriko jabeek erabakia zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkatzeko duten eskubideari kalterik egin gabe, hain zuzen lehiari eusteko eragozpenen ondoriozko administrazio jarduna aurkatzeko, haxe zehaztu beharra dago: Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 12.3. artikuluan ez da esaten ukituriko jabeek administrazio jarduna LBNren aurrean aurkatzeko eskubiderik dutenik.
15. Hainbat eratakoak izan daitezke merkatuetan lehiari eustearen kontrako eragozpenak ekar ditzaketen administrazio-jardunak: udalak monopolioa ematea enpresa bati, prezioak edo merkatu jakin bateko baldintzak erregulatzea, kontratazio publikoaren eremuko administrazio-jardunak edo estatuak lehiaren kontra emandako diru-laguntzak. Azken kasu horretan, LBNk eragozpenen kontra egiteko duen azken tresna da administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkatzeko aukera, noiz-eta administrazio emaileari igorritako proposamenak eta txostenak nahikoak ez diren.
16. Salaketa-egileak Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 10.4. artikulua eta beste batzuk aipatu izanari dagokionez, ondokoa adierazi du LDEZk kontzentrazio ekonomikoen inguruan: salatzaileak ez duela interpretazio



zuzenik egin 15/2007 Legean xedatu denaren inguruan kontzentrazio ekonomikoei dagokienez, zeren eta, kontzentrazio horiek kontrolatu ahal izateko, 8. artikuluan aipatzen diren betekizunak bete beharko baitira eta, kasu honetan, ez da hala gertatzen.

Bestalde, komenigarria da nabarmentzea ezen lehiaren defentsarako prebentzioko tresna dela kontzentrazioa kontrolatzeko sistema, eta sistema horren bidez, aurretik kontrolatzen dira zenbait eragiketa baldin eta, duten garrantziagatik, merkatuaren lehiaren egitura aldaraz badezakete onura publikoaren kontra; horrelakoetan, eragiketa horiek debekatu egin daitezke, edo baldintza batzuk jarri.

Era berean, bidezkoa da esatea Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 7. artikulua kontzentrazio ekonomikoaren gaineko definizio argia duela, eta definizio horretan, enpresak baino ez dira hartzen, entitate juridiko gisa, subjektu aktibotzat. Bestalde, esaten du enpresa bat edo batzuk osorik edo zati batean kontrolatzeko moduan aldaketa egonkorra gertatzen denean egongo dela kontzentrazioa.

17. Azkenik, salatzailak eskatzen duen diru-ordainari dagokionez (kalte-ordaina), hain zuzen ere *herri administrazioa kontzentrazioa egiten* ari delakoan, LDEZk dio ez dagoela Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren eginkizunen edo eskumenen artean banako eskubideei edo ezein kalte-ordaini buruzko ebazpena ematea. Hartara, bide egokiak daude (administraziokoak zein bide judizialak), betiere arauetan ezarritako betekizunak betetzen badira.
18. LDEZk bidalitako espedienteak dakarren dokumentazioa aztertuta uler daitekeenez, proiektuak hautatzeko prozeduraren eremuan kokatzen dira salaturiko gertaerak, eta horretarako eskumena dute herri administrazioaren hainbat mailak. Izan ere, administrazioko mailek ezin izan dezakete itzalperik eremu honetan, eta ez da antzeman Lehiaren Defentsari buruzko Legearen manuetan ezarritakoa hautsi izanaren zantzurik.



TKI enpresak J. R. B. Z.ren izenean eginiko salaketa eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren proposamena ikusita, ondokoa eman du Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak:

EBAZPENA

BAKARRA.- Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Auzitegi honi bihurturiko proposamena berresten da: zigor-espeditzea ez hastea eta J. R. B. Z.k TKI enpresaren izenean aurkezturiko salaketa artxibatzea.

Ebazpen hau jakinaraziko zaie Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuko (LDEZ) arduradunari eta demandatzaileari, J. R. B. Z.ri (TKI enpresaren ordezkariari), eta ohartarazpen hau egingo zaie: ebazpenak bide-administrazioa agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtoa jar dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan (TSJPV-EHJAN), bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Gasteizen, 2009ko otsailaren 2an